

GURE IRAKURGELA

GAZTE-LITERATURAKO TESTU AITZINDARIAK

Manu Lopez Gaseni

Itxaropena zarauztar argitaletxeko "Kuliska sorta" gerraosteko kultur gintzako erreferentea 1952an zabaldu zen, hain zuzen ere "Noni eta Mani". Islandiar mutiko biren gertaldiak gazte-aleberriarekin.

Jatorrizko testua alemanez idatzita zegoen, Jon Svensson islandiar jesulagunaren eskutik. Liburu horretan, zenbait abentura bizi ostean, fede katolikora bihurtu ziren bi mutikoren istorioa kontatzen da; azkenean, biak Frantziara

Liburua: "Noni eta Mani", Jon Svensson
"Mendiko argia", Franz Weiser
Itzultzailea: Plazido Mujika
Argitaldaria: Egan, 2006

joan ziren ikasketak bukatzera, jesulagunen ikastetxe batera eta, bigarren mailako ikasketak bukatuta Jesusen Lagundian sartu ziren.

Handik urte batzuetara, 1968an, Mensajero argitaletxe bilbotarrak beste gazte-aleberririk bat plazaratu zuen, "Mendiko argia", Franz Weiser austriarrak idatzia, alemanez orobat. Bertako protagonistak gazteak dira, eta Viena hiria eta Tiroleko mendien artean gertatzen diren abenturetan sinismenak eman dezakeen kementa eta bizi-gogoa azpimarratzen dira behin eta berriro, eskolako gazte-taldearen

teko liskar giroko hari argumental ahul batean zehar.

Bi itzulpenok lotzen dituen elementu nagusia itzultzailea da, noski: Plazido Mujika Berrondo (1906-1982) itzultzaile, hiztegigile eta euskaltzale nekazina. Bigarren loturak Inazio Loiolakoa sortutako Lagundiarekin du zerikusia, tarteko bi idazleak zein itzultzailea josulagunak baitziren.

Bada, bi testuok batera berrargitaratuak izan dira oraindik orain, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen eskutik. Edizio literarioaren ardura Gillermo Etxeberriarena izan da, eta tes-

tuaren moldaketa euskara batera Joxe Antonio Mujika itzultzailearen llobak egin du.

Fedearen inguruko helburu utilitarioak eta guzti, testuek garrantzi handia izan dute, ia irakurgairik ez zegoen garaian belaunaldi batzuen euskal heziketan eragina izan dutelako. Aitzindaritzat eta garai bateko lekukotasuntzat hartu behar dira egun; izan ere, gainontzean, eta euskara batuan jarriak izan arren, Altuberen sintaxi-legeei estu-estu jarraikiz euskaratu izanak tarteka astun egiten du irakurketa, gaien aldetik zaharkituxe egoteaz gain.